

HAURRESKOLAK ETORKIZUN BILA (2)

Harriduraz irakurri ditugu sare pribatuetako patronalen eta EAJren bozeramale bilakatu den Koldo Tellituren hitzak. STEILAS sindikatua EAJri zuzendu zaio, zuzen zuzenean. EAJren politikak Haurreskolak Partzuergoaren etorkizuna kolokan jarri dute. Horrela, egoera honen zergatiak mahai gainean jarri ditugu gure herrirako hezkuntza publiko integral baten defentsan. Eta jakina denez, eredu publikoak kolokan jartzen direnean, Euskal Herrian, beste edonon bezala, eredu pribatu baten aldeko apustua egiten delako da. Eta gure sindikatuak hori salatu du, berriro ere, eta horrelako politikak bultzatzen dituzten alderdi, patronalak eta erakundeak ez ditugu "bakean utziko". EAJren bozeramaile lanetan aritu nahi badu Tellitu jaunak eta doakotasuna, aukera berdintasuna eta langileentzako lan baldintza duinak defendatzen dugunon aurka horren defentsa sutsua egin, aurrera. Hala ere, ondo ulertu ez dutenez, hona hemen zenbait gogoeta, berriro ere.

EAJ-PSE Gobernu honek ez du Haurreskola Partzuergoaren aldeko apusturik egin. Haurreskola batzuk itxi dira eta matrikulazio hori pribatuak jaso du. Beste Haurreskola asko ixtear daude. Matrikulazio beherakada azken urtetan %20koa izan da eta 130 langile gutxiago daude lanean sare publikoko Haurreskoletan. Horren arrazoi nagusia haurreskola publikoen prezioa da, izugarri garestia honelako zerbitzu publikorako (gehienetan 208 euro hileko gehi beste 90 matrikulatzeagatik). Legez subsidiario izan beharko lukeen sare pribatuak (publikoaren osagarri), "de facto" lehentasun osoa hartu du Hezkuntza Sailaren politikak lagunduta. Mingarriak izan ziren Josu Erkorekaren hitzak Haurreskola Pribatua sare publikoa "osatzeko" finantzatzen direla esan zuenean. Gezur borobila baita. Ehunka plaza libre daude Haurreskola publiko askotan, eta ulergaitza da hori horrela izanda honelako dirutza bideratzea sare pribatura, "osagarria" izan beharko lukeen sarera.

Jakina da ere ikastetxe pribatu-itunduetako Haur Hezkuntzako lehen zikloko eta Haurtzaindegiko pribatuetako langileen lan baldintzak okerragoak direla. Administrazioari merkeago ateratzen zaio eredu horren alde egitea: Soldata okerragoak, ordutegi zalabalagoak eta ratio handiagoak. STEILAS sindikatua tinko aritu da eta jarraituko du langile hauen defentsan. Eta hori jakin badakite sare horretako langileek, gure afiliazioa %70 igo baita sare pribatuko langileen artean.

Pribilegioez aritu ginen, bai, eta hala da. Zonifikazioaz, matrikulazioaz, kooperatibista izateagatik onarpenerako puntuez, diru sarreraren kontrol ezaz e.a. aritu gaitzke. Baina luzeegi joko luke kontuak eta errealitatea herritar guztiek ezagutzen dute, zorionez. Horregatik diogu herritar hauen guztien aukera berdintasuna bermatuko duen eredu baten aldeko erakuntzan beharrezkoa da eredu jakin batzuk kolokan jartzea publikoa, guztiona, defendatzeko.

Aurrekontuen murrizketak sare publiko zein pribatuan eragin bera izan duela esatea gezur borobila da, iraingarria. Ez gara datuetan korapilatuko, baina hau Eusko Jaurlaritzak berak onartutako datu objektiboa da. Hezkuntzan egin diren murrizketak sare publikoak hartu ditu nagusiki bere gain. Sare pribatuaren finantziazioa igo egin da. Tellituk irakurketa interesatua egiten du finantziazioaren inguruko datuak ematen dituen. Irakaskuntza pribatuan Haur Hezkuntzako gela horiek ikastetxean egoten dira integratuak eta, beraz, finantziazioa ikuspegi globalago batetik begiratu behar da. Ikastetxe pribatuek orotara, askoz diru gehiago dute.

STEILASen etxeko lanak eginak ditugu. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren programek (hezkuntza sailaren aurrekontuen %77,5) 2009tik hona izandako garapena esanguratsua da:

2017an 2009an baino % 0,4ko igoera egon da hezkuntzarako partidetan. 2009tik gaur arte unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan 8,2 miloi gehiago badaude ere, Itundutako sarearen finantzaketa 41,7 milioitan igo da denbora tarte berean. Horren ondorioz sare publikora 33,5 miloi euro gutxiago bideratu dira. Dagoena gutxi izateaz gain, banaketa bera ere guztiz bidegabea da. Haurreskola Partzuergoari dagokionez, diru partidak handitu dira, bai, haurreskola berriak egin direlako hiriburu edo herri handietan. Hala ere, zenbaki osotan matrikulazioak %20 egin du behera eskola hauetan.

Segregazioa eta sareen arteko indize sozioekonomikoen aldea areagotu da. Bi hezkuntza sistema paralelo ditugu. Bata klase ertain altuentzat eta bestea klase ertain eta baxuentzat. Datu objektibo eta neurgarriek baieztatzen dute. Hitzez bai (kontrakoa esatea ikaragarria litzatekeelako), egoera honi buelta emateko prest daude, baina ekintzez segregazio egoerak indartzen laguntzen ari dira sare pribatuko ikastetxeak zein administrazioa. 0-3 etapako matrikulazioa gako nagusienetakoa da egoera honetan.

Errealitatea gordina da. Haurreskola publiko asko desagertzeaz daude, ez eskaririk ez dutelako, zerbitzua privatizatzen ari delako baizik. Ezaguna da sare pribatuaren kompetentzia desleiala: kuota merkeagoak kasu askotan, ikastetxean bertan ibilbidea bermatuta izatea, matrikulazioa...

Ez dugu inor suntsitu nahi, gure herrirako zerbitzu publiko indartsuak defendatu nahi ditugu. Oraingoan Haur Hezkuntzako lehen zikloaz aritu gara. Haurreskola publikoak eta Haurreskola Publikoko langileen lan baldintzak bermatu eta hobetu nahi ditugu etorkizunera begira. Badakigu erakunde asko aurrez aurre izango ditugula, interes eta proiektu propioen defentsan interes eta eskubide kolektiboen ginetik igarotzeko prest dauden erakundeak. Baina Euskal Herri osorako zerbitzu publikoen defentsan STEILAS ez dago bakarrik. Akordio zabalaren parte gara. Euskal Herri osoko eragile ezberdinen artean inoiz egon den adostasun nagusienari heltzen diogu oraingoan ere (140 erakunde eta eragilek sinatua), Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartari alegia: "0-3 urte tartean eta gainontzeko hezkuntza-etapetan (unibertsitatea barne) eskatzen diren plaza guztiak sare publikoan estaltzea, doan." Horra hor zer nahi dugun, guk eta herri honen etorkizun justuagoa nahi duten beste askok.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus